

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### GAUBEAKO UDALA

#### **Hasierako onespina ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen ordenantzaren aldaketari**

Udalbatzak, 2021eko uztailaren 29ko ohiko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onespina ematea ondasun higiezinaren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantzaren aldaketari.

Eta betetzeko Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. eta 65.2 artikuluetan eta Toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratua onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak 56. artikuluan xedatutakoa, espedientea jendaurrean jartzen da hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten hura aztertzeko eta egokitzat jotzen diren alegazioak edo erreklamazioak aurkezteko.

Epe hori igaro eta aldaketaren aurka alegaziorik edo erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat emango da.

Gaubea, 2021eko azaroaren 16a

*Alkate-lehendakaria*  
**GORKA SALAZAR SENSO**